

BERRIGARA

58. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1992, martxoak 27




Alkoholiko Anonimoak gaixotasun ezagunaren atzean



**Jubilatuen
Egoitza
berriztuko dute**



**Arantzazu
Loidirekin
berriketan**



**Futbol
eskolaren
hitzaldiak**

Burberrys
Yuste
Unicen
Miguel Ibars
Lider
Exigency
Punto Blanco
Peyton

Gizonezkoentzako jantziak

egizabal

oinetakoak

Firma guzti hauen abala daukagu

CAMPER
Panama Jack
Privata
Runner
Pons Q.
Ferrerias
Paco Herrero
George's

TELAETXE, S.A.

OIHAL ETA OIHAL PUSKAK



Aukera handia
oihal eta oihal pusketan
metroka zein pisura

Zetak, kortinak, toailak,
Yakareak, izarak, Tapizak,
e.a.

**LAURUNBAT ARRATSALDETAN
IREKITA**

Elgetarako bidea

(Gasolindegitik 300 m.ra)

Tfnoa: 76 39 40 - 76 39 41 - 76 00 46

Faxa: 76 56 38, 20.570 BERGARA

Gure berezitasuna:
zerbezak

Gosariak - Bintxoak
- Ogifartekoa - Kazuelatxoak
Plater Konbinatuak



BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elxpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifü eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Euskal jaialdia antolatu dute Institutuko 3. B.B.B.ko ikasleek ikas-bidaiarako dirua biltzeko asmoarekin. Txalaparta, txiste kontalariak, dantzariak eta Sarasua, Sorozabal, Olaso, Telleria eta Ainhoa bertsolariek alaituko duten jaialdi hau frontoian izango da. Larunbatean, gaueko 10.30etan.

LARUNBATA 28 lekuan.

Bideo-emanaldia:

- *Goonietarrak* bideoa, goizeko 11etan Kultur Etxean.

Pelota partiduak:

- Eugi-Errasti, Bergara II.-Maiz II/Alustiza-Tolosa eta Satrustegi-Arregi/Arteaga-Berna, Pelotalekuan 16.30etan.

Futbola:

- *Bergara-Antzuola* (infantilak), Ipintzan, 11etan.
- *Bergara-Colegio Aleman* (kadeteak), 17.00etan.

IGANDEA 29

Pala txapelketa:

- Goizeko 9etatik ordu bitara Osintxuko Pelota-

Futbola:

- *Bergara-Elgoibar* (kadeteak), Ipintzan 11etan.

Jaiak Elizmendin:

- Meza 12.30etan. Ondoren umeen bedeinkazioa.

ASTEARTEA 31

Hitzaldia:

- *Bergara Hiria Erdi Aroan*. Amaia Basterretxea, Kultur Etxean, 7etan.

OSTEGUNA 2

Hitzaldia:

- *Bergarako Udalerriko Ingurune fisikoaren azterketa*. J.M. Edeso, Kultur Etxean, 7etan.

FARMAZIAK



28 Puy/Ruiz (Arrasaten gauze).
29 Puy/Morales
30 Guallar/Azcoaga
31 Estella/Español
1 Mozos
2 Camacho
3 Puy

ZINEA



Frankie & Johnny

• **OSTIRALA:** 22.30etan.
• **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
• **IGANDEA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
• **ASTELEHENA:** 19.30.

La pequeña pícaro

• **IGANDEA:** 11.30etan.

El círculo del poder

• **OSTEGUNA:** 19.30.

OGIA



Mizpildi

ileapaindegia
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien karrozeria

Leizeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA





Bitorianori:

Ni be senide bat naiz. ETak hil zoztan senide bat, neri eta beste askori, eta orduan isilik egon biar izan ginan. Erruduna zan, ez dakit zerena, eta ez dakit zeinek hil zeban, baina badakit orduan zein isildu zan, zeinek bizkarra eman zoztan, ze alkatek ez zeban ezer egin.

Orain osterana libre da. Hiltzailak ez dare gustora kartzelan, eta beraien lagunak hor ibili dira ziero haserretuta, nik ez dakit ze eskubide zapaldu jauela eta. Merezki ote dabe eskubiderik, garbatu al dira egin zebenagatik?

Eta ze eskubide dauke bakarrik batzuren bizitzarekin arduratzen direnak danona dan aiuntamentu baten enzeraturik egoteko?. Ez dira denonak horien ideak, eta ez zeukazun zetan laga horrei hor egoten.

Naiko nuke nik nere senidea behintzat preso balego, eta ez hilda.

ETA erakunde terrorista eta hiltzaille honek bizirik irauten daben bitartean, danok gara presoak eta danok gara senideak.

Senide bat

Denok errudun

Gu Aranzadi Ikastolako 5. mailan gabiltzan neska mutikoak gara. Hiru astetan zehar ibaiari buruzko proiektu bat egiten aritu gara. Bertan bi ibai aztertu eta ezagutu ditugu: Deba eta Abrain. Horretarako ekintza asko burutu dugu, bat kutsadurarena izan delarik eta honen barruan dauden zaborrez ohartu gara. Benetan penagarria Deba ibaian aurkitu ditugun zabor ezberdinak: felpudoak, zapatilak, aterkinak, lorontziak, konpresak, jeringilak, plastikoak, deterjente poteak, tetra bik, eta noski, ondorioz ez dugu ez animalirik, ez landaririk aurkitu, Abrain erre-kara joan garenean ez bezala.

Beti entzun dugu lantegiek kutsatzen dituztela ibaiak. Hori badakigu egia dela eta noski jarraitu behar dutela depuradorak jartzen, baina lehen aipatu ditugun gauza guztiak, lantegiek botatzen al dituzte? Garbi dago hori ez dela egia, horren errudun bakarrak geu gara. Eta nahiz eta momentu honetan ibaiak aztertzen ibili, gure ingurua, kaleak, mendiak eta abar, ibaiaren bide berdina jarraitzen hasi dira. Zaborrek guri traba egiten digutenez, edozein


tokitan botatzen ditugu, berdin da kalean, mendian edo ibaian, ondorioz Izadi guztia zikintzen eta izorratzen ari gara, konturatu gabe Naturaren bizitza, hondatzen ari garela eta honen ondorioak latzak izango direla.

Hemendik aurrera Natura garbiago ikusteko esperantzarekin agurtzen zaituztegu.

Aranzadi Ikastolako 5. mailako ikasleak

OHARRA:

Gutunak sailera bidaltzen diren eskutitzak 20-25 lerrotakoak baino txikiagoak behar dute izan eta bidaltzailearen izen-abizenak, nahiz eta izenorde batekin publikatu, eman beharko dira.



Tiira ba!



Josu Okina

□ Bergara ezagutu

Gure herriaren ezagupena hitzaldi-sortarekin jarraituz, datorren asteartean, hilak 31, *Amaia Basterretxeak Bergara Hiria Erdi Aroan* gaiari buruzko hitzaldia emango du arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Ostegunean, berriz, apirilak 2, Bergarako *Udalerriko ingurune fisikoaren azterketa* egingo du *Jose Migel Edesok* ordu eta toki berean.

□ Aranzadi Ikastola

Apirilaren 6ra arte zabalik izango da Aranzadi Ikastolan 1.992-93 ikasturterako 3 urte dituzten haurrentzako aurrematrikula epea. Izena emateko idazkaritzatik pasa zaitezketen 8.30etatik arratsaldeko ordu batetara edota arratsaldez, 3retatik 6etara.

Jubilatuen Egoitza haunditzeko lanak hasi dira

Joan den astean hasi ziren Jubilatuen Egoitzan aspaldiko proiektu baten arabera egin beharreko haunditze lanak. Construcciones URBE S.L.k burutuko dituen lan hauek 10 hilabetez luzatu eta 30 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute.

Lokala txikia geratu denez, atzeko partetik, bariante aldera, 5 metro luzatuko da; horrela taberna haunditu, biltegitxo bat eraiki edota konponketak egiteko taller bat egingo dira atzeko parte horretan. Bolatokia ere lekuz aldatuko da, orain dagoena baino hobe egingo baita Egoitzako sarreraren ezker aldean.

Igogailua

Dena den, hainbat ur-




tetan burutzekotan izan den proiektu honen lanik inportanteena barrukaldean egingo den igogailu hidraulikoa litzateke. Beheko eta goiko pisua elkartuko dituen igogailu honi esker, abendu aldera lan guztiak amaituz gero, gutxituei zein ibiltzeko zailtasunak dituztenei bidea

erreztu egingo zaie Egoitza barne.

Elkartek gaur egun 5.000 bazkide inguru dituen arren, egunero egoitzara hurbiltzen den kopurua 500-700 pertsonatan kalkulatzen da. Haunditze lan hauekin zerbitzuak hobetu eta erosoago egoteko aukera eskeini nahi da.

Udaletxea, Aroztegin

Maiatzean Udaletxean hasiko dituzten berrikuntza lanak direla eta, aste honetatik aurrera eta, printzipioz, bi urte t'erdiz, Aroztegi Etxean izango dira Udaleko hainbat zerbitzu. Momentuz, Aroztegi Etxera Alkatetza, Idazkaritza, Interbentzioa eta Udaltzaingoa pasa dira. Epe laburrera, berriz, orain dagoen Bulego Teknikoaz gain, Kirolak, Euskara eta Ongizate Sozialerako zerbitzuak kokatuko dira Irizar Jauregian. Obra eta Zerbitzuetako brigadak bestalde, Patronato San Migelek Zabalotegin dituen lokaletara eramango dira, *La Vergaresan* egiten ari den biltegia amaitu bitartean.




BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA



□ Israel-Palestina


Komite Internazionalistek antolaturik, datorren asteartean, hilak 31, arratsaldeko 7 terdietan, *Ti Kva Henig-Parnas Alternative Information Centre* kideak israel-palestinar problematikari buruzko hitzaldia emango du UNEDeko Aretoan.

□ Pala txapelketa

Igande honetan, hilak 29, goizeko 9etan, emango zaio hasiera Osintxuko pelotalekuan *Udal Kirol Zerbitzuak* antolatutako binakako pala txapelketari. Ekaina aldera amaituko den txapelketa honetan 14 bikotek hartzen dute parte.

□ Goonietarrak

Larunbatean, hilak 28, *JARDUN Elkarteak* haurrentzako antolaturiko bideo-emanaldiekin jarraituz, *Goonietarrak* ikusi ahal izango da goizeko 11etan Kultur Etxean. Sarrerak 25 pta. balioko du.



Euskadiko Txapelketa

Euskadiko Xake Txapelketa Bergaran jokatu da apirilaren 20tik 26ra bitartean. Bergarako Xake Taldeak aurten bere 20. urtemuga ospatzen duenez, Euskadiko Txapelketaren VI. edizioa gure herrira ekartzeko ahalegin guztiak egin dira. Azkenik, Bergarako Udalak, Euskadiko Xake Federazioak, merkataldenda kolaboratzaileak eta, nola ez, Xake Taldeak posible egin dute asmo hori.

Kultur Etxean jokatu den txapelketa honetan, astebetez, euskal

herrialdeetako jokalaririk onenak bilduko direla espero da; azpimarratzekoa da, Euskal Herrian diren Nazioarteko Maisu eta Felix Izeta Euskadiko txapeldunetz gain, gure herriko partaidetza ere izango dela.

Gainera Euskadiko Txapelketa Euskadiko zein Estatuko *rating*erako baliogarria denez, jokalaririk onetsuenak puntu-en bila etorriko dira Bergarara. Datorren apirilaren 10ean, arratsaldeko 7.30etan, txapelketaren aurkezpena egingo da Kultur Etxean.

□ Jardunaldiak

Udal Kirol Zerbitzuak eta *JARDUN Elkarteak* antolaturik, datorren astean kirolari buruzko jardunaldiak izango dira UNEDen. Asteazkenean, apirilak 1, *Rafa Olarra, Maria Luisa Irizar* eta *Gaspar Esnaola* gonbidatu modura, eta *Juan Martin Elexpuru* moderatzaile lanetan izango direlarik, *Krossa Euskadin* izango da aztergai. Ostegunean, berriz, *Sabino Padilla* kirol medikuak *Fondoko entrenamenduari* buruzko hitzaldia emango du. Bi ekitaldiok UNEDeko Aretoan arratsaldeko 7.30etan izango dira.

□ Urrats Berri

Begarako *Herri Batasunak* dei egiten du, *Urrats Berri* prozesua jarraituz, datorren asteartean, hilak 31, arratsaldeko 7.30etan Arrano zaharrean egingo den bileran parte hartzeko.

GISASOLA

BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



Arazoak Urteagan

Bergarako Udalak, Urteaga kalean egiten ari den espaloian antzeman diren zenbait akats konpontzeko eskakizuna egin dio Diputazioari. Espaloi honetan kolektoreko usainen irteera isteko saretxo sinfoniko bat jartzea, errepidean ikusmen hobea izan dadin lehengo zubiaren ondoan dagoen orma pretilaren altueraraino moztea eta, azkenik, oztopo arkitektonikoen gainean dagoen araudia betez, espaloiak zoluarekin bat egiten duen toki guztietan errebatzea

eskatu da.

Donostiako Ingesa enpresa joan den urteko abendu hasieran hasi zen espaloia eraikitzen. 1.80 metroko zabalera eta 260 metro inguruko luzerarekin, lan hauek 37 milio pta.ko aurrekontua dute. Honekin loturik, Udala ez dago orma egiteagatik eskatu zaizkion ia 3 milioi pta.k ordaintzeko prest, bere esanetan "orma hori lehen ere han baitzegoen eta proiektuan ez zelako aipatzen". Hala ere, kostuaren % 25a ordainduko duela adierazi du Udalak.

Txinpartak

✓ **Euskal Telebistak** bihar, hilak 28, Santa Marina Parrokiko arratsaldeko 7etako meza grabatuko du. Hurrengo bi larunbatetan gauza bera egingo du igande eguerdian telebistatik emateko asmoz.

✓ **Pol-Pol Mendizale Taldeak**, bere 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzen barne, maiatzaren 1, 2 eta 3rako *Picos de Urbionera* irteera antolatu du. Prezioa, 13.500 pta.koa da.

✓ **Futbolin txapelketa** jokatu da, ostiralean, hilak 27, gaueko 10etan Tartufon LAMek antolatuta. Izena emateak 1.000 pta. balio du eta lehen hirurek 15.000, 10.000 eta 5.000 pta.ko sariak jasoko dituzte.

✓ **Erramu Zapatuko Feria** ospatuko da Bergaran hurrengo larunbatean, apirilak 4 goizeko 9etan hasita.

✓ **Jubilatuaren eskulanen** erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean igandera arte, hilak 29.

✓ **Adbay Crhistopher** margolariak Nahikari tabernan duen erakusketa bestalde, astelehenara arte egongo da ikusgai.

✓ **Institutuko** 3. mailako ikasleek, ikasbidararako dirua batzeko asmoz, Euskal Jaialdia iragarri dute larunbaterako, gaueko 10.30etan Frontoian.

Udan HAR EZAZUE EUSKARA IKASLE BAT ETXEAN

50.000 pza.ko dirulaguntza izango duzue.

Euskarak irabaziko du eta zeuek ere bai!!

Argibide gehiagotarako deitu edo etorri **Euskara Zerbitzura**. Tfnoa: 76 39 42.

BERGARAKO UDALA



EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA

Aizkoegiko Santa Engrazia

Guk bere Santutxua ezagutu dugu, ez ermita.

Santa Engraziaren Santutxua Zubikua eta Zubiberriren tartean zegoen, 4,68 metro karratu besterik ez zeuzkan. Santaren irudiak 40 zm. dauzka eta Santamañan gordetzen da. Santutxuko sarreran hauxe idatzita zegoen: hiltzorian daudenen eta bidarien babeslea; eta barrenera dirua botatzen zan. Beragana ere juaten zan ganaduaren osasuna eskatzeko, galdutako gauzaren bat aurkitzeko eta, batez ere, enorren desagerketarako.

Ermita Aizkoegi (Aizkoi) baserriaren ondoan zegoen. Zubiberri eta baserri honen bitartean dagoen harrobitxo baten muñoan, gaurko argi-indar dorre baten goi aldera. Oraindik toki horren izena "Santaen-

grazia solo" da. 1.468 garrren urteko testamentu batean azaltzen da ermita hau, eta nola diru pixka bat utzi zioten.

Batzuek Santutxuak ermiten artean kontatzen dituzte, bat gehiago bezala. Behin on Manuel Lekuonak esan zidan bazituela bere zalantzak gai honi buruz. Nik erantzun nion Bergaran behintzat oso nabarmen ikusten zela Santutxuen izatea: ez dela beste er-



Zubikua eta Zubiberri artean zegoen santutxua.



Santa Marinako sakristian gordetzen da gaur egun Santa Engraziaren irudia.

mita bat, bide bazterrean egindako ermitaren beso luzea baizik. Horrela, San Juan, Uberako San Pablo, Elgetarako bide zaharrean eroritako Uriarteko Andramaria, San Kristobal eta lehenago Elosuko Santikriutz, hau geroago eta gaur ermita biurtua. Bidariak ez du

ermitara joan beharrik, bera dabilen bide bazterrean bertan dauka ermitaren luzapena, Santutxua, irudi nagusi berdinarekin, otoitzerako eta atsedenerako, batzuetan bere aterpe eta guzti

Imanol Sorondo

ELADIO OINETAKOAK

Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA



JULIA

Frutadenda

Matxiategi 4 Behea BERGARA

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

- Iturkintza
- Berogintza
- Gasa

Amillaga 1
(B pabilola)
BERGARA

Tfnoa:
76 28 04



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Arantzazu Loidi Arrasate Press-eko zuzendariarekin:

"Jendeak hurbileko notiziak nahi ditu"

Arantzazu Loidi, bertsolari, kazetari eta itzultzaile. Bergaran jaio zen orain dela 25 urte baina hiru hilabeteko haurtxoa zela, gurasoekin batera Aretxabaletara joan zen bizitzera. Bertsogintzan Almeneko ikastetxean eman zituen lehen urratsak. Kazetaritza eta itzultzaile ikasketak Leioako Fakultatean eta Gasteizko Itzultzaile Eskolan burutu zituen. Gaur egun Arrasate Press astekariko zuzendaria da urte hasieratik.



mezko eta gizonezko bertsolarien kopurua parekatua izan arren, maila helduagotan gizonezkoak dira nagusi. Zergatik?

- Eskolarteko txapelketetan kopurua oso antzekoa da eta gainera idatzizko bertso txapelketetan neskatek irabazten dute gehienetan, publikoaren influentziarik izaten ez dutelako. Baina plazazterakoan oztopo haundiak izaten ditugu emakumeok, bai psikologikoak, bai sozialak, jendeak oraindik ez gaituelako onartzen, ahotsa ere oztopo haundia da... Guzti horiek kontutan hartuta, neska askok asper eginda utzi egiten dute.

- Emakume izateagatik bertsolaritzaren mundu horretan mimatuta sentitu izan zara inoiz?

- Bai askotan eta hori ez da ona. Badakit toki askotara

emakumea naizelako deitzen nautela, baina emakumezkoak bakarrik parte hartzen duten bertso saioak ez ditut aguantatzen, zeren hor arrisku haundia dagoela ikusten bait dut, hain zuzen ere kiroltan dauden maila ezberdinak bertsolaritzan ere sortzeko arriskuan eror gaitzkeela. Emakumeak eta gizonezkoak bertsotan batera jarduteko mugarik ez dut ikusten.

- Bertsolaritza iskanbila haundietan sartuta izan dugu azken aldiari Gipuzkoako Txapelketaren inguruan sortutako polemika dela ta. Nola ikusten duzu Jon Sarasuak finalean egindakoa?

- Pronostikoak, kinielak, favoritoak..., komunikabideetatik sortu den saltsa guzti horren kontra nago, batzuk txalotu diren moduan beste ba-

tzuk zapaldu egin direlako eta badakit batzuk oso minduta geratu direla. Jonek guzti hori salatu nahi izan zuen, baina askok ez dute ulertu. Gutxi izan ginen finaleko saioan Jonek egindakoaz ohartu ginenak. Ondoren komunikabideetatik eman zaion bonboagatik espero baino oihartzun haundia izan du.

- Gipuzkoako Txapelkun gertatu zen Peña zure faboritoen artean aurkitzen zen?

- Egaña garaile gertatuko zela uste nuen, baina asko poztu nintzen Peña irabazi zuelako eta pronostikoak ezertarako balio ez dutela argi geratu zelako.

- Arraste Press, ATB, irratia sortzekotan ere bazabiltzate..., Arrasate bezalako herri bat guzti horiei aurre egiteko gai dela uste duzu?

-Bai, jendeak hurbilago dituen notiziak nahi ditu. Bestalde, euskalduntze prozesurako oso tresna baliagarriak dira herri komunikabideak. Baliabide ekonomikoei dago kienez, berriz, instituzioek horrelako egitasmo haundiak bultzatu egin behar dituzte. Zerbait nahi badugu, dirua gastatu behar dugu, eta merkataria mentalizatu behar ditugu euren bezerorik onenak hurbilekoak direla konturatu daitezten, jartzen duten publizitatea errentagarria dela.

- Gazte mailetan emaku-

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

Tximak

Ileapaindegia

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

Alkohol barik bizi nahian


Alkoholiko Anonimoekin solasean

Alkoholismoa gizarteko gaitzik kaltegarrienetarikoa dugu, egunero-egunero gure artean sufritzen dugun gaitza. Alkoholak jota gaixo dagoen lagunik edota seniderik ez dutenak gutxi izango dira Euskal Herrian. Alkoholiko Anonimoak elkarte mundu osoan zabaldua dagoen taldea dugu. Alkoholikoek, beren gaixotasunari aurre egiteko sortutako elkarteak joan zen astebukaeran egin zuen Zestoan Nazioarteko Konbentzioa. Hori dela eta, Bergarako Alkoholiko Anonimoen taldeko hiru kideekin elkartu gara eta euren arazoak gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu.

A.A. taldea mundu osoan zabaldua dago eta Gipuzkoako 42 herritako talde ezberdinen antzera egiten du lan Bergarako A.A.en taldeak. Gipuzkoako beste taldeekin harreman estuak dituzte eta astero biltzen dira inguruko herrietako alkoholiko anonimoekin euren esperientziak elkartrukatzeko. Herrian alkoholiko gehiago badago ere, astelehenero, arratsaldeko zortzietan Kultur Etxean 10 bat alkoholiko anonimo biltzen dira euren egoerari aurre egiteko elkartasunean lan egiteko asmoarekin: "asko dira euren burua gaixotzat hartzeari uko egiten diotenak. Guk, ostera, pausu hori ematea lortu dugu eta, egia esan, taldeko kide

garenetik geure izaera goitik behera aldatu dela esan genezake; orain askoz ere gustorago bizi gara geure buruarekin. Hala ere, badira taldean hilabete batzuk eman ondoren, berriz ere tentazioan erori eta alkohola probatzen hasi direnak...", esan digu Bergarako alkoholiko anonimo batek.

**Euskadin
1.200
Alkoholiko
Anonimo
dago,
Gipuzkoan
700 eta
Bergaran 10**



BENITO CANTERO

Alkoholiko Anonimoak elkarte 1.935. urtean sortu zen Estatu Batuetan, bi alkoholikoren arteko harremanen ondorioz. 1.960. urtean Erreterian sortu zen Estatu Espainoleko A.A.en lehenengo taldea eta urtebete beranduago, Bergarako sortu zen. Gaur egun arte, 30 bat izan dira Bergarako A.A. taldeetik pasatu direnak. Estatu osoan 5.000 alkoholiko anonimo inguru dago, Euskal Herrian 1.200 bat, Gipuzkoan 700 izango dira eta lehen esan dugun bezala, 10 Bergaran.

Baina nor da alkoholiko eta nor ez da?, nola neurtzen da alkoholiko-

tasuna?, geure buruari sarri egiten diogun galderak dira:

"norbera izan behar da gai bere burua alkoholikotzat hartzeko; horixe izaten da zailena".

24 ordu edan barik

Astelehen guztietan elkartzen den hamarkoetan bost dira emakumezkoak eta beste bostak gizonezkoak. Adin ezberdinetako kidez osatutako taldean, batzuk urte asko daramate alkoholiko anonimo deklaratuak, beste batzuk, ostera, sartu berriak dira. Hilabete batzuk, bost urte

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

AFA - BI

Manufakturak, S. L.

P.V.C. Arotzgintza eta aluminioa
Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

eta 14 urte taldean daramatzen hiru gizonz-korekin elkartu gara gu.

Berriz ere edaten has-teko arriskurik baduten galdetzean hirurak bat etorri dira: "alkoholikoak gaixoak gara eta badakigu sekula ere ez garela sendatuko. Gure erronka, egunero-egunero esnatzerakoan alkohol tantarik ez edatea da, hurrengo 24 orduetan alkoholik ez probatzea, alegia. Nik 14 urte daramatzat alkohola probatu ere egin barik. Bihar ez dakit zer egingo dudan". Edateak min asko egin eta bai berari zein familiartekoei ordu garratzak pasarazi dizkion alkoholiko batek esan digu hori.

Hala ere, "alkohola edaten dutenen aurka ez daukagu ezer. Gure helburua guk alkohola ez edatea eta guregana laguntasun eske datorren alkoholikoari eskua zabaltzea da. Hori egiten dugu astero elkartzen garenean eta gauza bera egin dugu Zestoan antolatutako Nazioarteko Alkoholiko Anonimoen Jardunaldietan", gaineratu du.

Etorkizuna umore onez hartu

Gogorak pasatakoak dira gure solaskideak..., edateak problemak bakarrik ekarri dizkiela aitortzen dute: "egindako txotxolokeriak gogoratzen ditudanean. Etxean gaizki, lanean umore txarrez, ezertarako gogorik gabe,

"Alkohola edaten dutenen aurka ez daukagu ezer, helburua guk ez edatea da"

nahieza, familiartekoei kristonak eta bi pasarazi... Orain, aldiz, gustora asko bizi nahiz alkohol barik, ura, coca-cola, mostoa..., alkoholik gabeko edari asko daude", dio solaskide batek.

Beste batek, alkoholak eragiten zizkion kalteek, Alkoholiko Anonimoe-tan sartzeraz bultzatu zuteneko garaia gogoratzen du: "14 urte nituenean hasi nintzen edaten, lagunekin batera. Baina berehala konturatu nintzen alkoholak larregizko kaltea egiten zidala. Edaten nuen bakoitzean mozkor-mozkor eginda bukatzen nuen, eta oso problematikoa bihurtzen nintzen edaten nuenean, edonorrekin burrukan hasten nintzen... Hurrengo egunean, osterara, zeharo damutu eta egoten nintzen. Horrela urteak eman nituen baina iritsi zen momentua konturatu nintzena nire izaera guztiz aldatuta zegoela. Hasieran ez nuen uste arazo horiek alkoholak eragiten zizkidanik, hala ere alkohola uzten saiatu nintzen, baina ez nuen lortu, eta orduantxe konturatu

nintzen alkoholak sortzen zizkidala problema guztiak. Horrela ausartu nintzen egun batean Gasteizko Alkoholiko Anonimoen talde batera joaten eta harrezkero hemen daramatzat bost urte...".


Familiartekoen laguntza

Alkoholikoak badaki beren arazoei konponbidea berak aurkitu behar diela. Bere burua alkoholikotzat hartu behar du lehenengo, eta hori oso

iat taldean...".

Alkoholikoentzat taldeak dauden moduan, alkoholikoen senitarte-koentzako taldeak ere badira, AL-ANON ize-nekoa da ezagunena eta Bergaran ere lanean dihardu: "alkoholikoren batekin etxean bizi direnek ere, problema berdin sufritzen dute, gaixotasun siko-logikoa jasaten dute, eta horiek ere taldeetan elkartzen dira".

Gizartearen arazorik garrantzitsuenetarikoa den alkoholismoak, ir-



BENITO CANTERO

zaila izaten da. Baina familiartekoen laguntza erabakiorra izaten da: etxean eskeintzen zaion laguntasunik gabe alkoholiko bat ez litzateke aurrera jarraitzeko gai izango.

"Neri etxekoek, anaiak batez ere, asko lagundu zidaten. Eurengatik izan ez balitz ez nintzatekeen zuloatik irtengo. 14 urte daro-

tenbiderik baduela demostratzen saiatu zaizkigu gure solaskideak. Alkoholiko Anonimoak euren antzeko arazoak dituztenei eskua luzatzeko prest daude. Telefono dei bat nahikoa dela argitu digute. Horrela bada, hona Bergarako bi telefono hauek: 76 17 62 eta 76 22 53, eta Iruneko beste hau 61 93 38.

ederJU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00

BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS
oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

ARDATZA

Brikolaketa

**ATEAK
eta
HORMA
ARMAIRUAK**

Mahasterreka 4

☎ 76 18 93

Eguraldiaren pronostikoei kasorik egiten diezu?



Andoni Goiti
19 urte, ikaslea

Normalean ez diet kaso haundiegirik egiten, ez dute asko azertatzen eta.




Beatriz Gil
17 urte, ikaslea

Komeni zaidanean kasu egiten diet eta sinisten dut iragarpen horietan.



Paki Etxeberria
38 urte, etxeoandrea

Asko arduratzen naiz horretaz eta kasu egiten diet gehienetan azertatzen dutelako.



Manuel Varela
31 urte, langilea

Asko aurreratu da arlo honetan eta gaur egun metereologoei kaso egin diezaiekegu.

ELKAR

Eta orain fotokopiak koloretan

*Fotokopiak
Enkuadernazioak
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak*

Harruriaga 1, Behea Tfnoa: 76 58 16



**Joseba
Arregiri**

Berriro ere Joseba Arregik, Jaurilaritzako Kultur Sail-buruak, ezezko borobila eman die Euskaldunon Egunkaria-ren ordezkariak egindako dirulaguntza eskariari.

Arregi jauna, zuk diozunez Egunkariak ekonomia aldetik ez omen dauka inongo etorkizunik. Nola izango du ba, inongo laguntzarik jasotzen ez badu? Instituzioetatik sortzen den publizitatea izkutatzen bazaio?

Euskaraz idatzitako bi egunkarientzat ez omen dago tokirik. Euskaldunon Egunkariaren salmenten arabera, ez dirudi izango denik. Baina dagoneko egunkari bat badago, azpiegitura minimo bategaz funtzionatzen badu, jendea euskaraz behar bezala lan egiten prestatzen ari bada, eta egunkari horrek urtebete eta pikuko ihardueran beste edozein egunkarik erakutsi ez duen objetibotasuna izan badu, zergatik ez lagundu?

Egunkari ofiziala momentuz aparkatuta omen dago. Ba, segi dezala horrela, zeren egunen batean kaleratzen bada ekonomikoki ez da biablea izango, baina jasoko du laguntzarik; gobernuan dagoen alderdiaren euskal egunkaria izango da eta ez du objetibotasunik izango, baina jasoko du guztiok derrigortuta ordaindu beharko dugun laguntza. Ba, segi dezala dagoen tokian, euskaldunok ez diogu multarik jarriko gaizki aparkatuta egotearren eta.

Beñardo Kortabarría



Neurritasuna

Joan zen astean irakurri nuen Patxo Unzuetak "EL PAIS" egunkarian idatzitako artikulutxoá. Bertan, XX. mendearen hasieran Gipuzkoar korrikalari bati gertatutakoa aipatzen zuen.

Herriko korrikalari onena zen, baita probintziakoa ere, eta bertako jendeak munduko onena zela pentsatzen zuen. Egun batean belgiar txapeldun baten aurka prestatu zuten apostua, belgiarrak behin baino gehiagotan erakutsita zeukan bere maila nazioarteko lasterketatan.

Zarautzik Aiara joan behar ziren eta gipuzkoarrak hasieratik abantaila hartu zuen. Jendea kolore gabeko froga izango zela komentatzen hasi zen. Gutxi falta zenean Gipuzkoarra gelditu egin zen eta belgiarra poliki poliki hurbildu zitzaion eta baita gainditu ere; jendea bitartean garrasika ezer ulertzen ez zuelako.

Azterritarra garaile atera zen, bakoitzari berea eman zioten. Gipuzkoarra bi egun pasa ondoren hil egin zen.

Kirolak dauzkan abantailak asko eta asko dira, baina dena bezala bere neurrian.

Azken finean horretan datza gure bizitzaren ardatza.

Iñaki Ugarteburu

BOLINTXO

Okindegia


San Juan Tfnoa: 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
Tfnoa: 79 63 42 ARRASATE

GALLASTEGUI

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro 17, Tfnoa: 76 10 85



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



❑ Omenaldia Jubilatuetan

Joan den ostegunean Jubilatuen Egoitzan aurten 88 eta 89 urte betetzen dituzten bergararrei omenaldia eskeini zitzaien. Eguardiko 12etan Santa Marinaran meza entzun eta ondoren luncha izan zen. Omendutakoez gain, bertan bildu ziren, besteak beste, **Victoriano Gallastegi** alkatea, **Albaro Esparza** eta **Javier Cendoya** zinegotziak eta **Ines Etxebarria** gizarte laguntzailea, omendutakoei erregalu bana eman eta beraiekin jaiegun berezi hau igarotzeko asmoz.

❑ Bidaia

Institutuko 3. D/Eko ikasleak, ikasbidaiarako diru apur bat ateratzeko asmotan, **EL DIARIO VASCO**k bere Gazte sailean UBI edo BBB-3ko gazteentzat



antolatutako lehiaketara aurkeztu dira. Lehiaketa honetan enpresa-idea bat burutu eta garatu beharra zegoen eta ikasle hauek Euskarazko Argitaletxe eta Disko Tren Gazte bati buruzko lanak bidali zituzten. Erabakiaren zain, bidaia zoragarriekin amets egiten dutela pentsatzen dugu...Zorte on!!

ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline
 - P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

Pepelu
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



Barbara Thompson bitorea eta Steve Helm publizitate arduraduna Miguel Angel Elkoroberezibarrekin.

□ Ameriketako herri-prentsa

Miguel Angel Elkoroberezibar Berrigarako kolaboratzailea Estatu Batuetan izan dugu orain gutxi Usandizaga Institutuko bere ikasleekin ikas-bidaia burutzen. Bertan, Pennsylvaniako hainbat toki ezagutu eta primeran pasatzeaz gain, Newwillen ateratzen den **The Valley Times-Star** astekaria gertu gertutik ezagutzeko aukera ere izan zuen. Periodikoen formatoarekin egina, asteazkenero 35 zentaboren truke jaso daiteke 14 orrialdeko astekari hau. Gainera historia luzekoa dugu, 132 urte betetzen bait ditu aurten. Herri prentsak ere baditu bere aitzindariak...


□ Realik onena

Angiozartarrek gonbidatuta, joan den asteazkenean, 80ko hamarkadan Realak izan zuen ekipo ahaztezinan jokatu izan zuten hainbat jokalaria izan ziren bertan afaltzen. Garai haiek gogoratu eta bapo afaltzeko han izan genituen, besteak beste, **Satrus, Kortabarria, Zelaieta, Gorritz** eta, nola ez, "Gaztelu" bergararra ere. A ze ekipoa!!



Zertan dihardute ba?

EUSEBIO OSA



Gasteizko Majisteritza Eskolako Katedratiko izendatu berri dute 55 urteko bergarar hau, *Euskararen Morfosintaxia* katedrarako lehiaketan proba guztiak "egokiro" gainditu ondoren.

XABIER AZKARATE



Joan den igandean Baqueira Bereten jokaturako triatloi zurian, 27 urteko antzuolar honek 9. postua eskuratu zuen. Eskiko eta bizikleta proban ezin izan zion eutsi korrikan lortutako lehen postuari.

MAKAILO
Makailau **ETXEA**
kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

ANTIA HARATEGIA
URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Umore giroan

Aintxiñako nobixia

An zeguan Kaietano Casino Artistako leiotik begira, alako batian, emozioz, "alto y voz" esan zebanian:

Ene an joiak nere aintxiñako nobixa maitxia!!

Kasinuan zegoen danak urreratu ziran leiora Kaietanoren nobixa maitxia nor izan zan jakin naixan. Desilusifua eruan zeben ikusi zebanian Emilia Gisasola, Kaienen emaztia. Berantzat, axe zan aintxiñako nobixa maitia.

* * *

Sendia zenduan ala?

Juan zan Kaietano bere alabakin "La señora de Fatima" pelikulia ikus-

tera. Bere buruan iñoiz etzan sartu zinian negar egin leikianik. Baiñan ara or bere aurrian emakume bat zeguala negar eta negar pelikula guztian.

Alako batian, itxura danez aspertuta ainbeste negarrekin, ikutu zetsan sorbaldan andriari eta esan zetsan:

- Zu andra, senidia zenduan ala?

* * *

Burua ordu laurden lenago

Beste beñ esaten detsa bere emazte Emiliak:

- Gizon, Don Pepe "Noche" abadia ikusi dot eta naiko itxura onian billau dot.

- Ixildu zaitzez andra, burua ordu laurden lenago daroia atzia baiño-ta!!

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Aroztegi Etxea

Barrenkale kalean kokaturik dagoen ormarteko edifizioa dugu hau, arestian eraberritu dena. Fatxada, harlanduz egina, sinplea da oso, eta arku zorrotz samarreko sarbide-baoa agertzen da nagusi bertan, nazelan tailaturiko ertzak dituen dobela eskergak erakutsiz. Goiko parteko bi pisuek arku eskartzanoko launa bao aurkezten dituzte inongo apainketarik gabeak; leihobarrenak, aldiz, molduraturik daude.

Barrukaldea zeharo eraldatuta agertzen bada ere, gorde egin diren hainbat elementuk estilo elkarketa erakusten dute: batetik, kutsu tradizional edo herritarra duten lanak (obal antzeko horzkadak eta katetxoak habetako ertzetan), bestetik, errenaisantzakoak diren elementuak (toskanar kapitelak, kasu) eta, azkenik, italiar eragina duten zurgintzazko lan kultuak (etxearen ate eta ateskak, elementurik

nagusienak dudarik gabe).

Ateuskarri bakoitzak hogeita lau panel hartzen ditu apaingarri gisa, eta zefiro batek zentratzen duen kalostro baten bidez elkartzen dira. Panel hauetako apaindura joria eta aberatsa da oso; plateresko aurreratua-ren apainketa sorta guztia, manierismotik hurbil jadanik, hauetan ageri da: landare itxura hartzen duten muntroak, a candelieri motiboak eta, altuera erdian, medailoiak eta motibo heraldikoak. Guzti honek diseinu eta kalitate aparta erakusten du bere exekuzioan, behinolako axolagabekeriak ere suntsitu ez duena. Bai edifizio bera eta bai bertako egoile kultuak enkargaturiko ateak, XVI. mendearen erdialdean izan daitezke datatuak, korronte manieristan oraindik sartu gabe.

M. J. Aranburu eta
J. Gil Massa



u m e l a g a
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

MINER Ardo onak,
ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

LXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

Futbol eskolaren

gaineko hitzaldiak Kultur Etxean

Hurrengo astelehenean, hilak 30, bukatuko da Gipuzkoako infantil mailako zenbait futbol entrenadorek Bergarako Kultur Etxean eman duten entrenamendu ikastaroa. Gipuzkoako Federazioak azaro aldera baidala ezberdinetan martxan jarri zituen hainbat futbol eskolarekin loturik, ikastaro hauekin mutilentzat egokien diren entrenamenduak finkatu nahi izan dira. **Iñaki Sanjose** federazio-ko partaide eta gure baidako arduradunaren ustetan, "orain arte umee-kin ondo ari garela pentsatu arren, epe luzera kaltegarriak izan daitezkeela jakin dugu. Lehengo estruktural zahartuta geratu dira".

Futbol eskolak bere taldetan onentsuenak ziren jokalaria bultzatzeko asmoz sortu dira. Infantilekin hasi bada ere, federazioaren asmoa, erantzunaren arabera, datozen urteetan era honetako eskolak kadete eta jubenil mailatan sortzea litzateke.

Astean behin eta gehienetan Zumarragan 25-30 mutiko inguru biltzen dira entrenatzeko. Errekonozimendu medikuei esker mutiko bakoitzaren mugak eta ahalmenak ezagutzeko aukera dago. Hortik abiatuta, jokalar horien jarraipena eta, bide batez, ekipo guztien kantera hobetzea dute helburu eskola hauek. Horretarako tak-



tika, teknika eta datorren astelehenean izango den prestakuntza fisiko eta kirol medikuntzari buruzko hitzaldiak antolatu dira.

Reala kanpo

Horrez gain, Sanjosek azaltzen duen bezala, "notak kontrolatzen dizkiegu mutilei, futboletik biziko direnik pentsa ez dezaten". Orainarte Berga-

ratik, Iban Blanco, Ekaitz Mendizabal, Peli Iturrikastillo eta Gorka Aiestaran joan izan dira entrenamendu horietan parte hartzera. Futbol eskolako arduradunek kritikatu izan dute Reala plangintza honetan parte ez hartzea eta bere eskola propioa izatea, "azken batean beraiek aprobetxatzen dute batipatuk egindako lana", esan digu Iñaki Sanjosek.



Eugi-Errasti larunbatean

Ikusmin haundia sortarazi duen banakako pelota txapelketaren bigarren kanporaketa jokatuko dute larunbatean, Bergarako pelotalekuan, Patxi Eugi eta Jokin Errastik. Asteazkenean bi pilotariak Bergaran izan ziren materiale aukeraketan eta biak gustora azaldu ziren aukeratutako pelotekin; ez ordea pelotazaleak, asteazkenean bertan sarrera guztiak agortu baitziren. Unanue gaintitu ondoren, hauxe dugu Patxi Eugi aozitarrak jokatzen duen bigarren kanporaketa; pronostikoen arabera bera faborito dugun arren, aurrean izango duen Jokin Errasti azkoitiarra ez da arerio erreza izango. Irabazleak hirugarren errondan Fernando Arretxeren aurka jokatuko du.

Siaska

Dena zure
haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**JOSE
LUIS
eta
MIKEL**

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

Besaulki eta
tresiloen
konponketa
eta
tapizaketa.
Etxebarruen
dekorazioa

**ONGI ETORRI
Jatetxea**

Tfnoa: 76 63 49,
ANTZUOLA



Madurako futbol taldea

Sarritan agertu ditugu sail honetan Bergarako futbol ekipoak. Aspaldi batean Agorrosingo futbol zelai zaharrean liga jokatzen omen zen herriko talde desberdinen artean. "acero", "Oilokale", "San Migelpe", etab. ziren orduan, igande goizero, aipatutako ligan jokatzen omen zuten ekipotako batzuk.

Hemen dakargun erretratua orain dela 35 rute inguru aterartakoa da.

Hona zeintzuk diren ezkerretik eskumara bertan agertzen direnak:


Zutik: Juan Kruz Azkarate, Jesus Mari Larrañaga, Jose Jabier Lete, Jabier Madariaga, Juan carlos Mendizabal, Gaspar Elkorro, Miguel Etxaniz eta Jesus Beitia.

Makurtuta: Jose Antonio Agirre, Jose Antonio Elkorro, Angel Ostolaza, Luis Mari Etxaniz, Ismael Arrieta eta Jose Arrieta.

Estepan Plazaola

Argazkia: Juan Kruz Azkarate

**Kiroldegiko
Taberna**



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

**Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.**

San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.

☎ 79 23 83 ARRASATE

☎ 76 12 24 BERGARA

☎ (94) 681 76 19 IURRETA

ETXEBIZITZA

Harane Errekan **garajea salgai.** ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Antzuolan pisua erosiko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean. ☎ 76 31 35.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Garajea salgai Espalioan. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua alokatzen dut herriaren erdian. ☎ 76 44 35.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Adria 440 karabana salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 43 98.

6-8 urtekoentzako **Fondoko eski** pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

Dantzaldietan, bodetan e.a. etan ibiltzen den taldeak **teklista** bat behar du. ☎ 73 01 17.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Mendiko Kamet bota pare bat (44a) salgai. Oso merke. ☎ 76 24 64.

Hergo karabana salgai (4,20 metrotakoa eta ekipatuta). ☎ 76 17 61.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun **argazki makina** salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Collie txakur-kumak salgai. ☎ 76 64 83.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Txamarra urdin eta berde koloretakoa galdu zait. Topatzen duenak dei bezala lehenbailehen, mesedez, telefono honetara: ☎ 76 31 01.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 76 14 79.

LANA

Neska batek **edozein motatako lanak** egingo lituzke. ☎ 76 21 70.

Baserriko edota baserritik datorren gizon gaztea behar dut **nekazaritzako produktuak** saltzeko. ☎ 76 12 21.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Hildakoak

Juan Uribarri Irureta
martxoaren 13an, 65 urte.
Genoveva López Gómez
martxoaren 17an, 85 urte.

Jaiotakoak

Ander Casquero Cambronell
martxoaren 13an
Josu Mentxaka Garzia
martxoaren 14an
Markel Lopez Larrañaga
martxoaren 18an
Marina Urriolabeitia Odriozola
martxoaren 25ean

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

ZAPELAITZ


Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioak
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA